Bestelako Xedapenak

HERRIZAINGO SAILA

3140

EBAZPENA, 2011ko maiatzaren 25ekoa, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariarena, 2011n Polizien eta Suhiltzaileen New Yorkeko Munduko Jokoetan parte hartzen duten Ertzaintzako kirolarientzako laguntzak arautzen eta deitzen dituena.

Ertzaintzako kideak sasoian egon daitezen politika ezarri beharra dagoela iritzita, eta kirol-arloan izan duten ibilbidea dela-eta polizientzako kirollehiaketetan emaitza onak lortzeko aukera duten Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kidegoko kirolariei laguntzeko helburuz, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariak erabaki du ertzain kirolariei 2011ko ekitaldian emango dizkien laguntzak arautzea eta deitzea.

Laguntza hauek aurten New Yorken (USA), abuztuaren 25a eta irailaren 5a bitartean, izango diren Suhiltzaileen eta Polizien Munduko Jokoetan parte hartzen erraztea dute helburu. Parte-hartzaileen beraien kontura izango da kirol-joko horietan parte hartzen ematen duten denbora.

Azaldutakoan oinarrituta, Ebazpen honen bidez laguntzak kalkulatzeko baremoak eta kudeatzeko irizpideak ezartzen ditugu honako agindu honen bidez.

Euskal Herriko Polizia Ikastegiaren egiturari buruzko martxoaren 30eko 96/2010 Dekretuak (apirilaren 16ko EHAA, 70. zk.) ematen didan eskumenari jarraiki, honako hau

EBATZI DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Ebazpen honen xedea da, hain zuzen, aurtengo abuztuaren 25a eta irailaren 5a bitartean New Yorken (USA) izango diren Polizien eta Suhiltzaileen Munduko Jokoetan parte hartzen duten Ertzaintzako kirolarientzako diru-laguntzak eskatzeko eta emateko arauak ezartzea.

2. artikulua.– Diru-hornidura.

Ebazpen honen diru-hornidura berrogei mila (40.000) eurokoa da. Eskatzaile bakoitzari jokoetan parte hartzeagatik izaten duen gastuaren % 60 eman-

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

3140

RESOLUCIÓN de 25 de mayo de 2011, de la Directora de la Academia Vasca de Policía, por la que se regula y convoca la concesión de ayudas a los y las deportistas del Cuerpo de la Policía Autónoma del País Vasco que en el año 2011 participen en los Juegos Mundiales de Policías y Bomberos de Nueva York.

La Academia de Policía del País Vasco, considerando necesario establecer una política encaminada a fomentar el mantenimiento de unas óptimas condiciones físicas por parte de los miembros de la Ertzaintza y con el objeto de ayudar a aquellos o aquellas deportistas del Cuerpo de la Policía Autónoma Vasca que, por su trayectoria deportiva, tienen posibilidades de obtener buenos resultados en competiciones deportivas destinadas a policías, ha decidido regular y convocar la concesión de ayudas en el ejercicio 2011 para tal objetivo.

Las presentes ayudas se dirigen a facilitar la participación en los Juegos Mundiales de Policías y Bomberos a celebrar en el presente año en la ciudad de Nueva York (USA), del 25 de agosto al 5 de septiembre, siendo el tiempo empleado en la participación en tal evento deportivo a cuenta de las personas que participen en el mismo.

En base a lo expuesto, por medio de la presente Resolución se establecen los correspondientes baremos de ayuda y los criterios de gestión de la misma.

En virtud de la competencia que me otorga el Decreto 96/2010, de 30 de marzo (BOPV n. º 70, de 16 de abril), de estructura de la Academia de Policía del País Vasco.

RESUELVO:

Artículo 1.– Objeto.

Constituye el objeto de la presente Resolución el establecimiento de la normativa reguladora para la solicitud y concesión de ayudas económicas a los y las deportistas del Cuerpo de la Policía Autónoma Vasca que en el año 2011 participen en los Juegos Mundiales de Policías y Bomberos a celebrar en la ciudad de Nueva York (USA), del 25 de agosto al 5 de septiembre.

Artículo 2.– Dotación económica.

La dotación económica de esta Resolución es de cuarenta mil (40.000) euros. La cuantía máxima a subvencionar a cada solicitante será el 60% del gasto

go zaio gehienez, betiere ebazpen honetan ezarritako mugekin, eta inoiz ez bi mila eta bostehun (2.500) euro baino gehiago.

1.– Mantenua, bidaia, ostatua eta izena emateko kuota ordaintzeko gastuetarako emango dira ebazpen honek arautzen dituen laguntzak, betiere honako baldintza hauek betez gero:

a) Mantenuko gastuei dagokionez, benetan gastatutakoa eta justifikatukoa ordainduko zaie: gehienez ere 30 euro.

Dagokion diru-kopurua sortze aldera, mantenuko gastutzat joko dira bazkaltzeko edo afaltzekoak, banan-banan hartuta.

b) Bidaiatzeko gastuei dagokienez, bidaisaria ordainduko zaie, Euskal Autonomia Erkidegotik edo, hala badagokio, Penintsulatik New Yorkeko hiriraino; baita ere, alderantzizko ibilbidea.

c) Ostatuko gastutzat joko dira, berriz, logela eta gosaria ordaintzekoak. Gehienez ere lau izarreko hoteletan hartu beharko dute ostatu.

Ostatu-gastuengatik jaso beharreko zenbatekoa benetan gastatutakoa eta justifikatutakoa izango da, aurreko paragrafoan ezarritako mugen baitan.

Hartzen duten ostatuan ez badute gosaria ematen, benetan gastatutako eta justifikatutako gosaria ordainduko zaie, eta gehienez ere 6 euro.

d) Jokoetan, aukeratutako modalitateetan, izena emateko izandako gastuak joko dira inskribatzeko gastutzat.

2.– Ebazpen honetan arautzen diren laguntzen zenbatekoa (bera bakarrik edo beste diru-laguntza batzuekin batera hartuta) ez da, inola ere, onuradunak Polizien eta Suhiltzaileen Munduko Jokoetan parte hartzeagatik izaten duen gastua baino handiagoa izango.

3. artikulua.– Laguntzen onuradunak.

1.– Ertzaintzako kirolariek eskatu dezakete dirulaguntza, baldintza hauek betez gero:

a) Ertzaintzaren karrerako funtzionarioa izatea, eskaera egiten den unean, eta administrazio-egoera hauetan egotea: zerbitzu aktiboan edo bigarren jardueran.

b) Federazioaren lizentzia izatea:

– Diruz laguntzeko eskatzen den modalitateari edo modalitateei dagokien lizentzia.

– Deialdi hau baino 6 hilabete lehenagoko antzinatasuna izatea federazioan edo azken bosturtekoan hiru urtez federazioaren lizentzia indarrean izan izana.

efectivamente generado por la participación con los límites establecidos en la presente Resolución, sin que la cuantía máxima a subvencionar por cada solicitante pueda superar la cantidad de dos mil quinientos (2.500) euros.

1.– Se considerarán gastos, a los efectos de la presente Resolución, los gastos de manutención, viaje, alojamiento y cuota/s de inscripción, con las siguientes condiciones.

a) Los gastos de manutención se satisfarán por el importe realmente gastado y justificado, hasta un máximo de 30 euros.

A los efectos del devengo de la cantidad correspondiente se entenderán como gastos de manutención, individualmente considerados, los del almuerzo o cena.

b) Los gastos de viaje se satisfarán por el importe del billete o pasaje, desde la Comunidad Autónoma Vasca o, en su caso, desde la Península hasta la ciudad de Nueva York así como el trayecto inverso.

c) Se considerarán como gastos de alojamiento los correspondientes a habitación y desayuno. El hospedaje se efectuará en establecimientos hoteleros de hasta cuatro estrellas.

El importe a percibir por gastos de alojamiento será el realmente gastado y justificado, con sujeción a los límites establecidos en el apartado anterior.

Si el hospedaje no incluyera el desayuno, éste se satisfará por el importe realmente gastado y justificado, hasta un máximo de 6 euros.

d) Se considerarán gastos de cuota/s de inscripción los generados por la inscripción en la modalidad o modalidades objeto de inscripción.

2.– El importe de las ayudas reguladas en la presente Resolución en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones o ayudas, supere el coste generado por la participación en los Juegos Mundiales de Policías y Bomberos de la persona beneficiaria.

Artículo 3.– Personas beneficiarias de las ayudas.

1.– Podrán solicitar la concesión de esta ayuda los y las deportistas del Cuerpo de la Policía Autonomía Vasca que reúnan los siguientes requisitos:

a) Tener la condición de personal funcionario de carrera de la Ertzaintza en el momento de presentación de la solicitud encontrándose en las situaciones administrativas de servicio activo o segunda actividad.

b) Tener licencia federativa:

– Correspondiente a la modalidad o modalidades en virtud de la cual se solicita la ayuda.

– Con una antigüedad mínima de 6 meses anteriores a la fecha de publicación de la presente convocatoria o haber tenido licencia federativa vigente en

Kasu bietan federazioaren lizentziak indarrean egon beharko du ebazpen hau indarrean dagoen bitartean.

2.– Diru-laguntzak edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dien zigor-zehapenik edo administrazio-zehapenik dutenek eta horretarako gaitasunik gabe uzten dien legezko debekurik dutenek ere ezin izango dute diru-laguntza hau jaso, eta sexu-bereizkeriagatiko debekuak barne, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenean zehaztutakoarekin bat etorriz.

4. artikulua.– Diruz lagun daitezkeen kirol-diziplinak.

Polizien jarduerarekin lotura handiena duten kirol-diziplinak dira ebazpenari jarraiki diru lagun daitekezkeenak, eta banan-banan zein zenbait batera hartuta. Hona zehazki zeintzuk diren:

– Borroka-arteak (karatea, judoa eta taekwondoa).

– Atletismoa.

– Biatloia eta triatloia.

– Tiroa pistolarekin.

5. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Ebazpen honek arautzen dituen laguntzak lortu nahi dituztenek Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Ikastegiko zuzendariari zuzendu beharko diote eskabidea, euren datu pertsonalak eta identifikazio zenbaki profesionala azalduta. Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren Erregistro Orokorrean (Donostia kalea, 1; Vitoria-Gasteiz), Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Ikastegian edo azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38.4 artikuluak aipatzen duen edozein tokitan aurkeztu beharko dute eskabidea.

2.– Proposamenak aurkezteko epea hilabete batekoa izango da ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

3.– Kirolari bakoitzak eskabide bakarra egingo du, zein modalitaterako (baterako zein zeinbaterako) eskatzen duen diru-laguntza azalduta, ebazpen honetako 4. artikuluan ezarritakoari jarraiki.

4.– Eskabide horrekin batera, honako agiri hauek ere aurkeztu beharko ditu:

a) Federazioaren fitxaren (indarrean egon behar du) fotokopia, edo, bestela, azken bosturtekoan indarrean egondako hiru federazio-lizentzien fotokopia.

b) Kirol-merezimenduen akreditazioa, dagokion kirol-federazioak ontzat emanda, edo kirol-curriculuma.

tres años en el último quinquenio. En ambos casos habrá de mantenerse la licencia federativa en vigor durante todo el periodo de vigencia de la presente Resolución.

2.– No podrán ser beneficiarias de estas ayudas las personas que se hallen sancionadas penal o administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, o se hallen incursas en alguna prohibición legal que les inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por discriminación de sexo de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Final sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Artículo 4.– Disciplinas deportivas subvencionables.

Las disciplinas deportivas acreedoras de las ayudas reguladas por la presente Resolución son aquellas que mayor conexión guardan con la actividad policial y que se concretan en las siguientes disciplinas, así como las combinaciones entre ellas:

– Artes marciales (karate, judo y taekwondo).

– Atletismo.

– Biatlón y triatlón.

– Tiro con pistola.

Artículo 5.– Presentación de solicitudes.

1.– Las personas interesadas en la obtención de las ayudas a que se refiere la presente Resolución podrán presentar las solicitudes, indicando en la misma sus datos personales y número de identificación profesional, en el Registro General del Departamento de Interior del Gobierno Vasco, sito en la calle Donostia-San Sebastián, 1 de Vitoria-Gasteiz, en la Academia de Policía del País Vasco o en cualquiera de las dependencias a que se refiere el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, dirigidas a la Directora de la Academia de Policía del País Vasco.

2.– El plazo de presentación de las solicitudes será de un mes, contado a partir del día siguiente a la fecha de la publicación de la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco.

3.– Se realizará una única solicitud individual por deportista, debiendo hacer constar en la misma la modalidad o modalidades para las que se solicita la ayuda, ajustándose a lo establecido en el artículo 4 de la presente Resolución.

4.– A dicha solicitud se acompañará la siguiente documentación:

a) Fotocopia de la ficha federativa en vigor y, en su defecto, fotocopia de las tres licencias federativas vigentes en el último quinquenio.

b) Acreditación de méritos deportivos, con el visto bueno de la Federación Deportiva correspondiente o currículum deportivo.

c) Eskatzailearen zinpeko aitormena, non eskatzaileak zehaztuko baitu Eusko Jaurlaritzak ez diola inoiz eman bekarik, kirolaria izatearekin lotuta, eta ez dela agertzen eta ez dela agertu inoiz maila handiko kirolarien inongo urteroko zerrendatan akreditatzen dituen merezimenduen diziplinan.

d) Ekonomia eta Ogasun Sailaren «Hirugarren datuen alta» izeneko agiri normalizatuaren jatorrizko bertsioa, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegian jaso ahalko duena, behar bezala zigilatua eta dagokion bankuak eta eskatzaileak sinatuta, salbu eta aldez aurretik Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak diru-laguntzaren edo kalte-ordainen bat eman badio.

e) Polizien eta Suhiltzaileen Munduko Jokoetan parte hartzeagatik benetan izandako gastuen aurrekontua edo, hala badagokio, gastuen faktura, zehazkiago, mantenua, bidaiak, ostatua eta izena emateko kuotak direla-eta izandako gastuena.

Aurrekontua aurkeztuz gero, eta benetan izandako gastua egiaztatze aldera, dagokion faktura aurkeztu beharko du, eskabideak aurkezteko ezarritako epean eta lekuan.

f) Eskatzaileak, 8. artikuluan ezarritako aurrekontuak egiaztatzeko, beharrezkotzat jotzen dituen agiri guztiak, baremazioa egite aldera.

6. artikulua.– Aurkezten diren eskabideen akatsak zuzentzea.

Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiak antzemandako balu aurkeztutako eskabidea ez dela behar bezala formalizatu edo honako ebazpen honetan eskatutako agiriren bat falta dela, interesdunari eskatuko zaio hamar eguneko epean (10) akatsak zuzen ditzala edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala. Halaber, ohartaraziko zaio hori egin ezean eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, eta artxibatu egingo dela, dagokion ebazpena eman ondoren.

Orobat, egokitzat jotzen den kasuetan, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiak eskatu ahalko die eskatzaileei formalizatutako eskabideak ebazte aldera egokitzat jotzen duen behar beste agiri osagarri aurkezteko. Hori eskatu ostean, eskatzaileak ez badu dokumentazioa ezartzen den epean aurkezten, eskabidean atzera egin duela ulertuko da, eta artxibatu egingo da.

Eta hori Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 71.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

c) Declaración jurada en la que la persona solicitante especifique que nunca ha recibido beca por su condición de deportista por parte del Gobierno Vasco, ni figura o ha figurado en ninguna relación anual de deportistas de alto nivel del Consejo Superior de Deportes en la disciplina en la que se acrediten los méritos.

d) Original del modelo normalizado del Departamento de Economía y Hacienda denominado «Alta de Datos de Tercero», que podrá recogerse en la Academia de Policía del País Vasco, y que deberá ser entregado debidamente sellado y firmado por la entidad bancaria correspondiente y por la persona solicitante, salvo que hubiera percibido anteriormente alguna subvención o indemnización de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

e) Presupuesto o, en su caso, factura o facturas de los gastos, en concreto de manutención, viaje, alojamiento y cuota/s de inscripción, efectivamente generados por su participación en los Juegos Mundiales de Policías y Bomberos a celebrar en el presente año.

En caso de presentación de presupuesto, y a los efectos de acreditar la efectiva realización del gasto, se deberá aportar, dentro del plazo y en el lugar establecido para la presentación de solicitudes, la factura o facturas correspondientes.

f) Toda aquella documentación que la persona solicitante estime necesaria para la acreditación de los presupuestos previstos en el artículo 8 a efectos de baremación.

Artículo 6.– Subsanación de defectos en la solicitud presentada.

Si la Academia de Policía del País Vasco advirtiera que la solicitud presentada no se ha formalizado correctamente o falta alguno de los documentos exigidos en la presente Resolución se requerirá a la persona interesada para que en el plazo de diez (10) días subsane los errores o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido/a de su petición, archivándose la misma, previa la correspondiente resolución.

Asimismo en aquellos casos en que se considere necesario, la Academia de Policía del País Vasco podrá requerir a las personas solicitantes cuanta documentación complementaria estime oportuna para proceder a la resolución de las solicitudes formalizadas. Si tras dicho requerimiento no presentase la documentación en el plazo que se establezca se le tendrá por desistido/a de su solicitud, archivándose la misma.

Y ello de conformidad con lo establecido en el artículo 71.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

7. artikulua.– Diru-laguntzak esleitzeko irizpideak.

1.– Diru-laguntzen ebazpen-proposamena egiteko, Kalifikazio-epaimahaiak honako irizpide eta portzentaje hauek izango ditu kontuan:

Kirol-merezimenduen puntuen taula:

a) Bartzelonan 2003an, Quebec-en 2005ean, Adelaidan 2007an eta Vancouverren 2009an egindako Polizien eta Suhiltzaileen Munduko Jokoetan, aipatutako kirol-diziplinaren batean lortutako postuak:

Postua	Bartzelona, 2003	Quebec 2005	Adelaida 2007	Vancouver 2009
1 (urrezko domina)	60 puntu	60 puntu	60 puntu	60 puntu
2 (zilarrezko domina)	50 puntu	50 puntu	50 puntu	50 puntu
3 (brontzezko domina)	40 puntu	40 puntu	40 puntu	40 puntu
4	30 puntu	30 puntu	30 puntu	30 puntu
5	20 puntu	20 puntu	20 puntu	20 puntu
Parte-hartzailea	10 puntu	10 puntu	10 puntu	10 puntu

Atal honetan, kirolari bakoitzari aipatutako hiri bakoitzean lortu zituen hiru dominengatik edo hiru parte-hartze desberdinengatik puntuatuko zaio gehienez.

Era berean, atal honetan, parte hartu izanagatik lortuko ditu puntuak, bakarrik baldin ez bazuen inongo dominik lortu joko haietan.

b) Aipatutako diziplina batean edo zenbaitetan lortutako postuak, 2006an, 2008an eta 2010ean egindako Europako Polizien eta Suhiltzaileen Jokoetan:

Artículo 7.– Criterios de adjudicación de las ayudas.

1.– Al objeto de elaborar la propuesta de resolución de las ayudas, el Tribunal de Valoración tendrá en cuenta los siguientes criterios:

Tabla puntos méritos deportivos:

a) Puestos obtenidos en alguna o algunas de las disciplinas deportivas mencionadas en alguno de los siguientes Juegos Mundiales de Policías y Bomberos celebrados en el año 2003 en Barcelona, en el año 2005 en Québec, en el año 2007 en Adelaida y en el año 2009 en Vancouver:

Puesto	*Barcelona 2003*	*Québec 2005*	*Adelaida 2007*	*Vancouver 2009*
1 (m. oro)	*60 puntos*	*60 puntos*	*60 puntos*	*60 puntos*
2 (m. plata)	*50 puntos*	*50 puntos*	*50 puntos*	*50 puntos*
3 (m. bronce)	*40 puntos*	*40 puntos*	*40 puntos*	*40 puntos*
4	*30 puntos*	*30 puntos*	*30 puntos*	*30 puntos*
5	*20 puntos*	*20 puntos*	*20 puntos*	*20 puntos*
Participante	*10 puntos*	*10 puntos*	*10 puntos*	*10 puntos*

En este apartado, a cada deportista se le puntuará como máximo la obtención de tres medallas o participaciones distintas por cada una de las distintas sedes indicadas en las que haya participado.

Igualmente en este apartado, únicamente se obtendrán puntos como participante en el caso de no haber obtenido ninguna medalla.

b) Puestos obtenidos en alguna o algunas de las disciplinas deportivas mencionadas en alguno de los siguientes Juegos Europeos de Policías y Bomberos celebrados en 2006, 2008 y 2010:

Postua	2006	2008	2010
1 (urrezko domina)	30 puntu	30 puntu	30 puntu
2 (zilarrezko domina)	20 puntu	20 puntu	20 puntu
3 (brontzezko domina)	10 puntu	10 puntu	10 puntu
Parte-hartzailea	5 puntu	5 puntu	5 puntu

Puesto	*2006*	*2008*	*2010*
1 (m. oro)	*30 puntos*	*30 puntos*	*30 puntos*
2 (m. plata)	*20 puntos*	*20 puntos*	*20 puntos*
3 (m. bronce)	*10 puntos*	*10 puntos*	*10 puntos*
Participante	*5 puntos*	*5 puntos*	*5 puntos*

Atal honetan, kirolari bakoitzari, Europako Jokoetan parte hartu duen urte bakoitzeko, gehienez hiru domin lortu izanagatik edo hiru parte-hartze desberdinengatik emango zaizkio puntuak.

Era berean, atal honetan, parte hartzeagatik bakarrik lortuko dira puntuak, inongo dominik lortu ezean.

c) Aukeratzen diren modalitatetan azken bost urteotan akreditutako kirol-markak, epaimahaiaren ustez, horrek Polizien eta Suhiltzaileen jokoetan domina lortzea ahalbidetzen badu. Baremo hau erabiliko da: urrezko domina, 60 puntu; zilarrezko domina, 40 puntu eta brontzezko domina, 20 puntu.

d) Azken bost urteotan estatuko lehiaketetan edo herrialde-lehiaketetan tiron edo babesean (judo, karate edo taekwondo) lortutako postuak, eta epaimahaiaren arabera, Polizien eta Suhiltzaileen hurrengo Jokoetan dominen bat lortzeko aukera izatea, ondorengo baremoaren arabera: lehen postua 100 puntu, bigarren postua 80 puntu, hirugarren postua 60 puntu, laugarren postua 40 puntu eta bosgarren postua 20 puntu.

2.– Balorazio orokorrean 200 puntu baino gutxiago lortzen dituzten eskabideak ezingo dira diruz lagundu.

8. artikulua.– Epaimahai Kalifikatzailea.

1.– Aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko Epaimahai Kalifikatzailea eratuko da. Hona kideak:

– Mahaiburua: Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendaria.

– Kideak: Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko teknikari bi.

– Idazkaria: Kudeaketa Ekonomiko eta Kontratazioko Zuzendaritzako teknikari bat.

2.– Epaimahai Kalifikatzaileak gehiengo soilez hartuko ditu erabakiak, ebazpen honetako 7. artikuluan diru-laguntzak esleitzeko ezarritako irizpideei jarraiki, eta dagokion ebazpen-proposamena emango dio Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariari.

9. artikulua.– Hautatzeko prozedura.

1.– Eskatzaileen artean banatuko dira laguntzak, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariaren

En este apartado, se puntuará como máximo la obtención de tres medallas o participaciones distintas por cada uno de los años de celebración de Juegos Europeos por deportista y año en las que haya participado.

Igualmente en este apartado, únicamente se obtendrán puntos como participante en el caso de no haber obtenido ninguna medalla.

c) Marcas deportivas acreditadas en los últimos cinco años en la modalidad o modalidades que se soliciten, y que a juicio del Tribunal posibilite la obtención de medalla en los próximos Juegos de Policías y Bomberos, con el siguiente baremo: medalla de oro 60 puntos, medalla de plata 40 puntos y medalla de bronce 20 puntos.

d) Puestos obtenidos en los últimos cinco años en Campeonatos estatales o regionales de tiro o de defensa (judo, karate o taekwondo), y que a juicio del Tribunal posibilite la obtención de medalla en los próximos Juegos de Policías y Bomberos, con el siguiente baremo: primer puesto 100 puntos, segundo puesto 80 puntos, tercer puesto 60 puntos, cuarto puesto 40 puntos y quinto puesto 20 puntos.

2.– Las solicitudes que obtengan menos de 200 puntos de valoración global no serán subvencionables.

Artículo 8.– El Tribunal de Valoración.

1.– Para el análisis y evaluación de las solicitudes presentadas se constituirá un Tribunal de Valoración compuesto por los siguientes miembros:

– Presidente/a: la Directora de la Academia de Policía del País Vasco.

– Vocales: dos técnicos/as de la Academia de Policía del País Vasco.

– Secretario/a: un técnico/a de la Dirección de Gestión Económica y Contratación.

2.– El Tribunal de Valoración tomará las decisiones por mayoría simple, de acuerdo con los criterios de adjudicación establecidos en el artículo 7 de la presente Resolución, y elevará la oportuna propuesta de resolución a la Directora de la Academia de Policía del País Vasco.

Artículo 9.– Procedimiento de Selección.

1.– Las ayudas serán distribuidas entre los solicitantes por Resolución de la Directora de la Academia

ebazpenaren bidez, Epaimahai Kalifikatzaileak hala eskatuta.

2.– Aurreikusitako diruzko dotazioa norgehiagoka-erregimenean banatuko da, 7. artikuluaren arabera gutxieneko puntuazioa lortzen duten eskabideen artean.

Gauzak horrela, diru-laguntzak emango dira Ebazpen honen 2. artikuluan zehaztutako ehunekoak eta zenbatekoak kontuan hartuz; dena dela, dotazio ekonomikoa nahiko ez balitz, proportzioz banatuko da, balorazio fasean lortutako puntuazioa horren parametroa izanik.

10. artikulua.– Ebazpena.

1.– Eskabideak aurkezteko epea agortutakoan, hiru hilabeteko epearen barruan emango du Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariak deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzak emateko agindua, Epaimahai kalifikatzaileak egindako proposamena ikusi ondoren, eta horren berri emango zaie esleipendunei.

2.– Ebazteko epea amaituta, interesdunari inolako jakinarazpenik egin ez bazaio, eskabidea ezetsitzat joko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 44.1 artikuluan ezarritakoari jarraiki.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrak edo erakunde autonomiadunek ezaugarri bereko beste laguntza edo diru-laguntzaren batzuk eman badituzte, eta horiek itzultzeko edo zigortzeko prozesuren bat oraindik ere izapidetzen ari bada, prozesu hori amaitu egin beharko da onuradunei diru-laguntzak edo laguntzak eman eta, hala badagokio, ordaindu ahal izateko.

4.– Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko Iragarki-oholean, Ertzaintzaren intranet korporatiboan (Gurenet) eta Ertzaintzaren unitateetako iragarki-tauletan argitaratuko da deialdi hau ebazten duen ebazpena.

5.– Diru-laguntza ordainduko da Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariaren ebazpena argitaratu ondoren, beti ere eskatzaileak aurretik uko egiten ez badio.

11. artikulua.– Onuradunen betebeharrak.

Ebazpen honetan araututako laguntzak jasotzen dituzten onuradunek honako betebehar hauek izango dituzte:

a) Diru-laguntza emateko ebazpenean ezarritako baldintzetan onartzea diru-laguntza. Ildo horretatik, diru-laguntza eman zaiola jakinarazten zaion egunetik hasi eta hamabost eguneko epean, onuradunak,

de Policía del País Vasco, a propuesta del Tribunal de Valoración.

2.– La dotación económica prevista será adjudicada en régimen de concurrencia competitiva, entre aquellas solicitudes que conforme al artículo 7 hayan obtenido la puntuación mínima allí establecida.

A estos efectos la concesión de las ayudas se realizará teniendo en cuenta los criterios de cuantía y porcentajes establecidos en el artículo 2 de la presente Resolución, si bien en el supuesto de que la dotación económica no fuera suficiente, se utilizará un criterio de reparto proporcional utilizando como parámetro la puntuación obtenida en la fase de valoración.

Artículo 10.– Resolución.

1.– La Resolución de concesión de las ayudas previstas en esta convocatoria será dictada y notificada a las personas adjudicatarias, a la vista de propuesta elevada por el Tribunal de Valoración, por la Directora de la Academia de Policía del País Vasco en el plazo máximo de tres meses, a contar desde la finalización del plazo de presentación de solicitudes.

2.– Si una vez transcurrido dicho plazo no hubiera sido notificada a las personas interesadas resolución alguna, las solicitudes correspondientes se entenderán desestimadas, de conformidad con lo establecido en el artículo 44.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

3.– La concesión y, en su caso, el pago de las ayudas quedarán condicionados a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y por sus Organismos Autónomos, se halle todavía en tramitación.

4.– La Resolución por la que se resuelva la presente convocatoria será publicada en el Tablón de Anuncios de la Academia de Policía del País Vasco, en la intranet corporativa de la Ertzaintza (Gurenet) y en los tablones de anuncios de las distintas Unidades de la Ertzaintza.

5.– El pago de la ayuda se efectuará tras la Resolución de concesión de la Directora de la Academia de Policía del País Vasco siempre que no haya previa renuncia de la persona solicitante.

Artículo 11.– Obligaciones de la persona beneficiaria.

Las personas beneficiarias de las ayudas reguladas en la presente Resolución deberán cumplir en todo caso las siguientes obligaciones:

a) Aceptar la subvención concedida en las condiciones establecidas en la resolución de otorgamiento. En este sentido, si en el plazo de quince días contados a partir del día siguiente al recibo de la notifi-

berariaz eta idatziz, diru-laguntzari uko egin ezean, diru-laguntza onartu egin duela ulertuko da.

b) Diru-laguntza xede jakin bat betetzeko ematen denez, diru-laguntza xede jakin horretara bideratzea, 12. artikuluan –baldintzak aldatzeari buruzkoan– finkatutakoa aplikatu ezean.

c) Herrizaingo Sailak eskatzen dion informazio guztia ematea.

d) Diru-laguntza eman dion erakundeari jakinaraztea Espainiako edo nazioarteko beste edozein administraziok edo erakunde publikok nahiz pribatuk helburu bererako bestelako diru-laguntzak edo laguntzak eman dizkiola.

e) Kontrol Ekonomiko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, beren eginkizunetan dihardutela, deialdi honen kontura jasotako diru-laguntzen inguruan eskatzen dioten informazioa ematea.

f) Laguntza ematerakoan kontuan izan zen dena delako egoera objektibo edo subjektiboa aldatu egin baldin bada, horren berri ematea laguntza eman dion erakundeari.

g) Irudi korporatibo onari eustea, lehiaketa edo ordezkapen ofizial guztietan parte hartzen ari den bitartean.

12. artikulua.– Diru-laguntza emateko baldintzak aldatzea.

Diru-laguntzak ematen dituen ebazpena aldatu ahalko da, diru-laguntza esleitzeko kontuan hartutako baldintzetan edozein aldaketa eginez gero, baldin eta deialdiaren xedea betekotzat jotzen bada eta, hala dagokionean, deialdi honetan esleitutako diru-laguntzez gain beste erakunde publiko zein pribatu baten diru-laguntzak edo laguntzak jaso badira. Ondorio horietarako, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariak dagokion likidazio-ebazpena egingo du, emandako diru-laguntzen zenbatekoa egokitzeko.

13. artikulua.– Diru-laguntza emateko baldintzak ez betetzea.

Diru-laguntza emateko baldintzak nola edo hala betetzen ez direla frogatzen bada, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko zaio jasotako dirua, baita sortutako legezko interesak ere, hala agintzen baitute azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuak. Itzultzeko modua ere aipatutako dekretuetan jasotzen da. Batez ere honelakoren bat gertatuz gero:

a) Gastuak zuritzeko obligazioa ez betetzea.

b) Diru-laguntza eman zen helbururako ez erabiltzea.

cación de la concesión de la subvención, la persona beneficiaria no renuncia expresamente y por escrito a la misma, se entenderá que ésta queda aceptada.

b) Destinar la subvención al objeto para el que ha sido concedida, salvo que resulte de aplicación lo establecido en el artículo 12, relativo a la alteración de las condiciones.

c) Facilitar cuanta información le sea requerida por la Academia de Policía del País Vasco.

d) Comunicar a la entidad concedente la obtención de subvenciones o ayudas para la misma finalidad, procedentes de otra Administración o ente público nacional o internacional.

e) Facilitar a la Oficina de Control Económico y al Tribunal Vasco de Cuentas la información que le sea requerida en el ejercicio de sus funciones respecto a las subvenciones recibidas con cargo a esta convocatoria.

f) Comunicar a la entidad concedente la modificación de cualquier circunstancia tanto objetiva como subjetiva que hubiese tenido en cuenta para la concesión de la subvención.

g) Mantener la buena imagen corporativa durante toda la participación en las competiciones o representaciones oficiales.

Artículo 12.– Alteración de las condiciones de la subvención.

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la correspondiente ayuda y, siempre que se entienda cumplido el objeto de ésta y, en su caso, la obtención concurrente de subvenciones y ayudas otorgadas por otras administraciones o entes públicos o privados, nacionales o internacionales, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de la concesión de la ayuda. A estos efectos por la Directora de la Academia de Policía del País Vasco se dictará la oportuna resolución de liquidación, en la que se reajustarán los importes de la ayuda concedida.

Artículo 13.– Incumplimientos de los requisitos de otorgamiento.

La constatación de la existencia de cualquier supuesto de incumplimiento de las condiciones que motivaron la concesión de la subvención dará lugar, de conformidad y en los términos establecidos en el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, y en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, a la obligación de reintegrar a la Tesorería General del País Vasco las cantidades percibidas más los intereses legales que procedan. Y en especial en los siguientes casos:

a) El incumplimiento de la obligación de justificación.

b) El incumplimiento de la finalidad para la que la ayuda fue concedida.

c) Laguntza lortzeko eskatzen diren baldintzak bete gabe lortzea.

d) Ebazpen honetako 11. artikuluan ezarritako obligazioren bat edo batzuk ez betetzea.

e) Laguntzen diru-kopuruak jardueraren kostua gainditzea.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Ebazpen honek amaitu egiten du administrazio-bidea. Horrenbestez, horren aurka interesdunek aukerako berraztertzeko errekurtsoa jar diezaiokete Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariari, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Bestela, administrazioarekiko auzierrekurtsoa ere jar dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salan, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

Bigarrena.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da eragiten Ebazpen hau.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko maiatzaren 25a.

Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendaria,
ELENA MORENO ZALDIBAR.

c) La obtención de la ayuda sin reunir las condiciones requeridas para ello.

d) El incumplimiento de alguna o algunas de las obligaciones establecidas en el artículo 11 de la presente Resolución.

e) El exceso de financiación en relación al coste de la actividad.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Contra la presente Resolución, que agota la vía administrativa, podrán interponer los interesados recurso potestativo de reposición ante la Directora de la Academia de Policía del País Vasco, en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco o directamente recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia de la Comunidad Autónoma del País Vasco en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación en el mismo diario oficial.

Segunda.– La presente Resolución surtirá efectos el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 25 de mayo de 2011.

La Directora de la Academia de Policía del País Vasco,
ELENA MORENO ZALDIBAR.